

GETARIA, FORMAK eta ZAPOREAK

Euskal Kostaldeko Museoen Hilabeterako ekintzen programan sartutako proposamena: EUSKAL KOSTALDEKO MUSEOAK, BALIABIDEEN ITSASOA

Cristóbal Balenciaga Museoak kostaldeko Getaria herriko baliabide natural eta kulturalak ezagutzeko proposamen ezin hobea egiten du. Parte-hartzaileek moda-sortzaile getariarrari eskainitako museo gidari baten laguntzaz bisitatuko dute, haren sorkari bikainetara hurbiltzeko, eta bere historiagatik eta gastronomiagatik ospetsua den eremu honetako ondare aberatsa ezagutuko dute.

- **Iraupena:** 10:30etatik 14:00etara.
- **Martxoko lehenengo hamabostaldiko asteburuak:**
Martxoaren 5a eta 19a (euskara)
Martxoaren 12 eta 26 (gaztelania)
- **Esperientziaren barruan haxe sartzen da:**
MAISOR Kantauriko kontserben egileari bisita
CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEORA bisita
GAINTZA upategira bisita
Bertako produktuen dastatzea

EGITARAUA

10:30–11:00. Esperientziaren hasiera eta **MAISOR Kantauriko kontserben egileari** bisita.

Getariako kaia euskal itsasertzeko baxurako arrantzako gune garrantzitsuenetako bat da eta arrantzaren espezie protagonista nagusiak antxoa, hegaluzea eta berdela dira, besteak beste.

Kontserbak egiten dituen MAISOR familia-enpresak artisau-lantegi bat dauka, Getariako kaian bertan, lonjatik metro gutxitara. Parte-hartzaileek enpresak ekoizteko erabiltzen dituen artisau erako lan-prozesuak eta lantegi txikia ezagutzeko aukera izango dute. Lantegian, erakustaldi labur baten bidez, antxoa garbitzeko eta xerratzeko zeregin arretatsua ulertuko dute.

www.maisor.com

11:15–12:45 CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEORA bisita.



Cristóbal Balenciaga Museoa 2011ko ekainaren 7an inauguratu zen eta moda-sortzaile bati oso-osorik eskainitako munduko lehen museo handia da. Haren helburua hauxe da: Cristóbal Balenciaga diseinatzaile bikainak eta haren lanak sorkuntza artistikoan, oro har, eta bereziki, modaren eta goi-mailako jostintzaren munduan duten garrantzia ezagutaraztea eta nabarmentzea.

Museoak Cristóbal Balenciagaren nazioarteko sorkari-bilduma garrantzitsuena gordetzen du, bai osatzen duten piezen kopuru eta kalitateagatik, bai haren hedapen kronologiko handiagatik.

Gidari aditu baten eskutik, parte-hartzaileek «Balenciaga. Legatu denboragabea» bildumaren erakusketan sakonduko dute. Erakusketaren helburua Cristóbal Balenciagaren obraren ezaugarri nagusiak agertzea da, baita modaren eta diseinuaren historiari egin zion ekarpen erabakigarria ere. Era berean, parte-hartzaileek «Ikatza eta belusa» momentuko aldi baterako erakusketa bisitatuko dute. Erakusketak herri-janzkera du ardatz, eta ezagutarazten du zer-nolako ikuspegi erromantikoa zeukaten Cristóbal Balenciagak eta Ortiz Echagüek janzkera horren inguruan, eta nola egin zuten haren berrikuspen estetikoa: goi-mailako jostintzako sorkarietan, lehenak, eta Espainia tradizionalari buruzko argazki-erretratuetan, bigarrenak.

13:00–14:00 GAINZA upategira bisita eta bertako produktuen dastatzea. Esperientziaren amaiera.

GAINZA upategia, Garate mendiaren magalean kokatua, Kantauri itsasora begira, sortu zenetik (1923) Getariako ardo zuri bereizgarria, txakolina, egin, ekoitzi eta saltzen aritzen da. Bisitariak upategia inguratzen duten mahastiez gozatu ahal izango dute, eta haren instalazioetan paseatuz, txakolina egiteko prozesua ezagutuko dute. Bisita bukatzeko, parte-hartzaileek ohiko produktu hori dastatuko dute, bertako produktuen aperitibo on-on batez lagunduta.

www.txakoligaintza.com

ZEBITUAREN EZAUGARRIAK

Topalekua eta esperientziaren abiapuntua Getariako Portu kalea 3 da (MAISOR); beheko planoan adierazita dago.



Gidari batek lagunduko du taldea zerbitzualdi osoan. Esperientziaren toki batetik besterako joan-etorriak oinez egingo dira.

Gomendioak:

- Parte-hartzaileei ibilgailua Getariako kaiko aparkalekuan uztea gomendatzen zaie (esperientziaren abiapuntutik gertuen dagoen tokia).
- Mugikortasun mugatua duten pertsonen, mesedez, antolatzaileei jakinarazteko eskatzen zaie, beharrezko neurriak hartzeko.
- Adingabeko guztiek arduradun batez lagunduta joan beharko dute.

ERRESERBAK, ORDAINTZEKO MODUA, BALIOGABETZEA ETA BERTAN BEHERA UZTEA

Aurretik erreserbatu eta ordaintzea ezinbestekoa da.

- Erreserbak **943 00 88 40** telefonora deituz edo **info@crislobalbalenciagamuseoa.com** helbidera idatziz egin behar dira. Cristóbal Balenciaga Museoa mezuz elektronikoz bat bidaliko du, aurre-erreserbarekin eta informazio-agiriarekin batera.
- Erreserbatzeko, honako datu hauek eman beharko dira:
 - Bisitaren data.
 - Zenbat toki erreserbatu nahi diren.
 - Harremanetarako telefono bat.
 - Helbide elektronikoz bat.
 - Kontuan hartu beharreko alderdiak (mugikortasun mugatua, eta abar)

- Antolatzaileek parte-hartzaile kopurua aldatzeko aukera izango dute. Zerbitzua egiteko gutxieneko pertsona kopurua 8koa da.
- Erreserba ez da osatuko aurretiko ordainketa egin arte. Banku-transferentzia bidez egin behar da, 2095 0611 01 1064089690 kontura.
- Erreserbak egiteko epea, bai telefonoz bai posta elektronikoz, irteera bakoitzaren aurreko ostegunean bukatuko da, 15:00etan. Ordaintzeko epea aurreko ostiralean bukatuko da, 15:00etan. Ordainketa finkatutako epean egiten ez bada, erreserbak baliogabetutzat joko dira.
- Izena ematen duten pertsonak gidariarekin harremanetan jarri ahal izango dute, 688 682 011 telefonoaren bidez. Zenbaki hori bisitaren eguneko goizeko 10:00etik egongo da martxan. Erabiltzaileen zalantzei eta argibide-eskaerei erantzuteko erabiliko da telefonoa. Telefono zenbaki hori zerbitzua bukatu bezain laster desaktibatuko da. Zenbakia zerbitzuz kanpo dagoen bitartean, bezeroek Cristóbal Balenciaga Museoarekin harremanetan jartzeko aukera izango dute, edozein informazio edo argibide eskatzeko, aurretik adierazitako telefonoaren eta posta elektronikoaren bitartez.
- Izena ematen duten pertsonak garaiz iritsi beharko dute adierazitako tokira. Topaketaren lekura garaiz iristen ez badira, bisitan parte hartzeko eskubidea gal dezakete.

Tarifak:

Tarifa	BEZa barne
Pertsona bakoitzeko tarifa orokorra	21,00 €
9 urtetik beherakoak (gehienez ere adingabeko bat heldu bakoitzeko).	Dohainik

Ordaintzeko modua:

- **Aurretiko ordainketa.**
- Ez da onartuko bisitaren ondoren ordaintzea. Ordainketa behar bezala egiten ez bada, bisitan parte hartzeko eskubidea gal daiteke.
- Ez dira ez txekeak ez bestelako ordainketa-moduak onartuko.
- Edozein arrazoi dela medio, bidaia bertan behera utziko balitz, Cristóbal Balenciaga Museoak erreserbari dagozkion zenbatekoak itzuliko ditu, banku-transferentzia bidez.

Baliogabetzea:



- Izena ematen duten pertsonak beren erreserbak baliogabetzeko aukera izango dute. Horretarako, Cristóbal Balenciaga Museoarekin harremanetan jarri beharko dute, **943 00 88 40** telefonora deituz edo **info@cristobalbalenciagamuseoa.com** helbidera idatziz.
- Mesedez, ahalik eta lasterren eman bisita baliogabetzeko asmoaren berri, itxaron–zerrendan dauden pertsonen garaiz abisatu eta toki libreak behar adina denborarekin bete ahal izateko.
- Erreserbaren ziurtagiria adierazitako tokian, egunean eta orduan agertu ezean, bisita baino gutxienez 24 ordu lehenago erreserba ezeztatzeko asmoa jakinarazi ez bada, ordaindutako zenbatekoa galduko da.

Bertan behera uztea:

Zerbitzua bertan behera utzi ahal izango da, gutxieneko parte-hartzaile kopuruaosatzen ez bada. Behar bezala formalizatutako 8 aurre-erreserba behar dira, gutxienez. Irteera bakoitzaren aurreko egunean, 15:00etan, gutxieneko kopurua osatu ez bada, erreserba egin duten pertsonen bertan behera utziko dela jakinaraziko zaie eta jasotako zenbatekoak itzuliko zaizkie.

